

*Maitea, ez duzu asaldatu
beharrik.*



Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea



Esanahi berttua dute honako esaldi hauek:

- Maitea, ez duzu **zertan** asaldatu. (Heg.)
- Maitea, ez duzu **zer** asaldatu. (Ipar.)
- Maitea, ez duzu **zergatik** asaldatu.

Aditzak adierazten duen ekintza egiteko arrazoirik edo premiarik eza adierazten dute egitura horiek.

Sarritan, ordea, hauen moduko esaldiak egiten dira:

- *Ez dugu **zertan** horrela **ibili beharrik**.
- *Ez dago **zertan larritu beharrik** huskeria horrengatik
- *Ez daukazu **zertan** horrenbeste neke **hartu beharrik**.

Ez dute inolako tradiziorik, eta, hortaz, desegokitzat ematekoak dira.

**Bi molde nahasteagatik sortu ohi dira
aurreko esaldi horiek.**

Ez du itxurakeriatan **ibili beharrik.**

+

Ez du **zertan** itxurakeriatan **ibili.**

***Ez du zertan itxurakeriatan ibili beharrik.**



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



Honela, ondo:

- Ez dugu **zertan** horrela **ibili**.
- Ez dago **zertan** **larritu** huskeria horrengatik.
- Ez daukazu **zertan** horrenbeste nekerik **hartu**.



Baita honela ere:

- Ez dugu horrela **ibili beharrik**.
- Ez dago **larritu beharrik** huskeria horrengatik.
- Ez daukazu horrenbeste nekerik **hartu beharrik**.

Eta honela ere bai:

- Ez dugu **zer ibili** horrela.
- Ez dago **zer larritu** huskeria horrengatik.
- Ez daukazu **zer hartu** horrenbeste nekerik.



Ikusten denez, perpaus nagusiaren adizkia **edun / eduki*
nahiz *izan / egon* izan daitezke.

Partitiboarekin ere ager daitezke, bestalde, halako
egituretako partizipioak:

- *Ez dugu / daukagu* **zer** **lotsatu / lotsaturik** horien
aurrean.
- *Ez da / dago* **zertan** **fidatu / fidaturik**.



Beste adibide batzuk, orain:

Ez dut + [-TU + Ø] + **BEHARRIK**

- Hura ezagutzeko, ez **dut** berarekin **mintzatu beharrik**.
- Hori egiteko, ez **duzu** urrutira **joan beharrik**.

Ez daukagu **ZERTAN** + [(-TU + Ø) / (-TU + -RIK)]

- Ez daukagu **zertan kezkatu**.
- Ez zaitzatela zeure burutazioek izutu; ez **daukazu zertan zurbildurik**.



Beste adibide batzuk, orain:

Ez duzu **ZER** + [(-TU + Ø) / (-TU + -RIK)]

- Ez duzu **zer** **lotsaturik** Mirenez maitemintzeagatik.
- Alde horretatik **ez daukat** **zer** **kexatu**.

Ez dauka **ZERGATIK** + [-TU + Ø]

- Jakite horrek **ez dauka** **zergatik** **izan** filosofikoa.
- Ez dauka **zergatik** bitxia **iruditu**.

